



Gizareratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

ATZERRITARTASUN ZUZENBIDEKO GAIAK

ATZERRITARTASUNEN PROZEDURETAN ENPRESEK DUTEN ZEREGINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES





Atzerritar jatorria duten langileak hartu nahi dituzten enpresek 4/2000 Lege Organikoan eta garapenerako araudian ezarritakoa bete beharko dute, langileentzako bizitzeko eta lan egiteko baimena eskuratzeko eta tramitatzeko adierazten diren jarraibideei dagokienez.

NOLA KONTRATATZEN DIRA JATORRIZKO HERRIALDEAN DAUDEN ATZERRITARRAK?

Jarraian, atzerritartasuneko araudiak ezarritako hainbat bide azalduko ditugu:

Jatorrian egindako prozedurak:

Besteren kontura lan egiteko eta bizitzeko baimena: Enpresek oraindik jatorrizko herrialdean bizi diren langileak kontrata ditzakete, eta besteren kontura lan egiteko eta bizitzeko baimena tramitatu haienzat. Baimena emateko, kontuan izan beharko da langileak enpresan egiten duen jarduera Betetzeko Zailak diren Lanpostuen Katalogoaren barruan dagoela edo enpresak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak igorritako eskatzaileen gabeziaren ziurtagiria eskuratu duela. Eskakizun hori ez da beharko Espainiak nazioarteko hitzarmenak egin dituen herrialdeetako (Txile-Peru) herritarren kasuan edo LOEXen 40. artikuluan ezarritako kasuetan.

Betetzeko Zailak diren Lanpostuen Katalogorako esteka: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2023-5458

Kualifikazio altuko profesionalentzako bizileku- eta lan-baimena: Enpresek oraindik haien herrialdean bizi diren atzerriko pertsonak kontratatu ahal izango dituzte goi mailako hezkuntza-kualifikazioa eskatzen duten lan-jardueretarako, edo, salbuespen gisa, horrekin alderagarria den bost urteko esperientzia profesionala duten kasuetarako.

Jatorrizko herrialdeko kontratazioen kudeaketa kolektiboa: Espainian ez dauden edo bizi ez diren langileen kontratazio programatua ahalbidetzen du, langileen kudeaketa kolektiboa onartzen duen Ministerioko Aginduan jasotzen diren enplegu egonkorrek betetzeko. Interesdunak haien jatorrizko herrialdean hautatuko dituzte enpresek aurkeztutako eskaintzetatik abiatuta. Aurreikusitako lan-baimenek lau urteko iraupena dute eta urte batean gehienez ere bederatzi hilabetez lan egiteko aukera ematen dute, sektore bakar batean.

NORK HASI BEHAR DU TRAMITEA?

Enpresak egin behar du lehen urratsa oraindik jatorrizko herrialdean bizi diren atzerritarrak kontratatu nahi baditu.



ZER BALDINTZA ETA DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DITU ENPRESAK?

Hasierako eskaera enpresak/enplegatzaileak egingo du zerbitzuak eskainiko diren Atzerritartasun Bulegoan (dokumentazioa eta tasak).

Baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, autoritate eskudunak eskaeraren ebazpena igorriko du (3 hilabeteko epean).

Langileak bizileku- eta lan-bisa eskatu behar du misio diplomatikoan edo Espainiako kontsulatuaren bulegoan (hilabete bateko epea ebazteko).

Gizarte Segurantzaren alta eman behar du (3 hilabeteko epea sartzen denetik) eta txartela (ANA) eskatu Polizia Nazionalean (hilabete bateko epea Gizarte Segurantzaren alta ematen denetik).

ENPRESAK KOSTUREN BAT HARTU BEHAR DU BERE GAIN BIZILEKU ETA LAN BAIMENA ESKATZEKO PROZEDURAN?

- Enpresak tasa bat ordaindu beharko du baimen-eskaerak tramitzeko (790 eredua 062 kodea).

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/tasa062>

ZER GERTATZEN DA ENPLEGATZAILEARI KONTRATAZIOAN ERAGITEN DIOTEN BALDINTZAK ALDATZEN BADIRA?

- Enpresak **derrigorrez jakinarazi beharko du baimen-eskaera atzera botu duela**, baimena edo bisa ebatzi bitartean kontratatzekeo beharra amaitzen bada edo eskaeraren oinarrian zegoen lan-kontratuaren baldintzak aldatzen badira.
- **Enplegatzailea hiltzen bada**, kontratatu beharreko pertsonari beste enplegatzaile batek eman diezaioteko alta; betiere Espainiara legez sartu denetik hiru hilabeteko epean.



ETA KONTRATATU NAHI DEN PERTSONA ESTATUAN EGOERA IRREGULARREAN BALDIN BADAGO?

Orduan, ezohiko baldintzengatik ematen den bizileku-baimena eska daiteke, esaterako, errotze sozialaren prozeduraren bitartez. Garrantzitsua da jakitea errotze sozialagatiko baimena eskatzeko, enplegatu beharreko pertsonak frogatu behar duela **3 urtez jarraian bizi izan dela Espainian**. Enpresa atzerritar bat kontratatzeko prest egon arren lanpostu bat betetzeko, hark ez baditu baldintzak betetzen, esaterako, eskatzen den gutxieneko egonaldia, ezingo da kontratazioa gauzatu.





- Autoritateen aurrean errotze sozialagatik eta prestakuntzarako errotzeagatik lan-kontratua aurkezteko, lan-araudian aurreikusita dagoen edozein kontratu-mota aurkez daiteke, betiere **Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata edo hitzarmen kolektiboan ezarritako urte osoko soldata** bermatzen bada gutxienez, eta aste osoko lanaldiak ezingo du astean **hogeita hamar ordu baino gutxiagokoa izan konputu orokorrean**.
- **Lanaldi partzialeko kontratu bat edo hainbat** onartuko dira urteko konputu orokorrean Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatara heltzen badira, lanaldi partzialeko kontratu guztiak gehituta.
- Adingabeen edo gaitasun juridikoak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonen kargura daudela egiaztatuz gero, gutxienez **astean 20 orduko kontratua** onartuko da.

ETA KONTRATATU NAHI DEN PERTSONAK PRESTAKUNTZARAKO ERROTUTA EGOTEAGATIKO EGOITZA BAIMENA BADU?

Kontratatu nahi dugun atzerritarrak lan egiteko aukera izan dezan, prestakuntzarako errotzeagatiko bizileku-baimena besteren konturako BIZILEKUA ETA LANA baimenarekin **ordezkatu beharko du**. Horretarako, langileak baimen-aldaketa eskatu beharko du Atzerritartasun Bulegoan, eta lan-kontratua aurkeztu beharko du, bi aldeek sinatuta, eskatzen diren gutxieneko baldintzekin. Aldeko ebazpena igorri ondoren, enplegatzaileak Gizarte Segurantzari eman beharko dio alta langileari, baimenak eragina izan dezan.

KASU HORIETAN ERE ENPRESAK HASI BEHAR DITU TRAMITEAK ATZERRITARTASUN BULEGOAN?

Ez, eskaera-tramitea atzerritarrak berak egin behar du, baina beharrezkoa da enpresak lan-kontratua sinatzea gutxieneko lan-baldintzekin.

ZER INPLIKAZIO DU ENPRESARENTZAT LAN KONTRATUA EMATEAK?

Jatorrian egindako kontratazioekin gertatzen den bezala, eskatutako baimenaren aldeko ebazpena jaso arte itxaro beharko da eta, hilabeteko epean, alta eman Gizarte Segurantzari, kontratatzeko.

ESKAERA EBATZI ARTEAN LAN EGIN DEZAKE?

Ez. Prozeduraren ebazpena jaso arte itxaron behar da.



ALDIZ, ENPRESAK BIZILEKU ETA LAN BAIMENA DUEN ATZERRIKO PERTSONAREN BAT KONTRATATU NAHI BADU, ZERBAIT HARTU BEHAR DU KONTUAN?

Baimenaren iraupena hartu behar du kontuan. Baimena iraungita egon arren berritzea/aldatzea epearen barruan eskatu badu, indarraldia luzatu egingo da eskaera ebatzi arte.

Era berean, beharrezkoa da jakitea berritzeko ere tasak ordaindu behar direla; bat langileari dagokio eta, bestea enpresari.

ENPRESAK PERTSONA KOMUNITARIO BAT KONTRATATZEN BADU, PROZEDURA BERA DA?

Pertsona komunitarioek ez dute bizileku- eta lan-baimena eskatu beharrik lan egiteko. Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ) soilik eskatu behar dute Polizia Nazionalean, enplegatzaileak Gizarte Segurantzari alta eman ahal izateko.

KONTRATATU BEHARREKO PERTSONAK NAZIOARTEKO BABESA ESKATU BADU, KONTRATATU DAITEKE?

Asilo-eskatzaileek lan egin dezakete eskaera tramitatu eta 6 hilabete igaro ostean. Bizileku- eta lan-baimenekin bezala, kontuan izan behar da baimenaren iraunaldia, zeina eskaeraren aldeko edo kontrako ebazpenaren mende egongo den.

ENPLEGATZAILEARENTZAT BADAGO ZIGORRIK?

Arau-hauste larria: Eskatu duen besteen kontura lan egiteko eta bizitzeko baimenaren arabera langileari dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean alta ez ematea, edo eskaeraren oinarri gisa erabilitako kontratuaren baldintzak ez erregistratzea, enpresa jakitun denean langilea modu legalean dagoela Espainian, lan-harremanarekin hasteko gaituta. Hala ere, erantzukizun horretatik salbuetsita egongo da enpresaren bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen, edo, legediaren arabera, harreman hori eragozten duten bat-bateko arrazoiak autoritate eskudunei jakinarazten dizkien enpresaria.

Arau-hauste oso larria: Atzerriko pertsonak kontratatzea aurretiaz dagokion bizileku- eta lan-baimena eskuratu gabe. Kasu horretan, okupatutako langile bakoitzeko arau-hauste bat egingo du enpresak, betiere, gertakaria ez bada delitua.



8ATZERRITARTASUN ZUZENBIDEKO GAIAK AIPATUTAKO BAIMEN GUZTIEN KASUAN KONTUAN IZAN BEHARREKOA:

- Enpresak **baliabide ekonomiko**, material edo pertsonal nahikoak izan beharko ditu bere enpresa-proiekturako.
- Enplegatzaileak **bi aldeek sinatutako lan-kontratua** aurkeztu beharko du, eta kontratu horrek jarduera jarraitua bermatu beharko du hasierako bizileku- eta lan-baimenak duen indarraldian zehar.
- Halaber, **IFK eman beharko du**, eta, enpresa pertsona juridiko gisa eratuta baldin badago, eskaera formulatzen duen pertsona fisikoari legezko ordezkaritza ematen dion dokumentu publikoa.
- Baimena lortzeko **lan-kontratua Enpleguaren Zerbitzu Publikoetan erregistratu** beharko da.
- Enpresa eskatzailea **Gizarte Segurantzako sistemaren erregimenean egon beharko da inskribatuta** eta jakitun izan beharko da zergen eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen dituela.
- Kontratua hasteko epea **baimenaren eraginkortasun-unearen** arabera izango da.

NON DAUDE ESKAERAK EGITEKO ATZERRITARTASUN BULEGOAK?

EAEko Atzerritartasun
Bulegoen helbideak:

Araba: Olagibel kalea, 1, Gasteiz:

Bizkaia: Barroeta Aldamar kalea, 1 8beheko solairua), Bilbo

Gipuzkoa: Pio XII kalea, 6 (sarrera independentea du Javier Barkaiztegi kaletik),
Donostia

Informazio gehiago: https://mpt.gob.es/delegaciones_gobierno/delegaciones/paisvasco/servicios/extranjeria.html

ETA TRAMITEA MODU TELEMATIKOAN EGINEZ GERO?

MERCURIO plataformara sartu beharko da ziurtagiri digitalarekin: <https://sede.administracionespublicas.gob.es/mercurio/inicioMercurio.html>



ONDORIOAK:

1. Atzerriko pertsonak bizileku- eta lan-baimena izan behar dute lan-merkatura sartzeko.
2. Baimenak berritu egin behar dira. Berritzeko eskaera egin bitartean, baimena luzatu egingo da, ebazpena jaso arte.
3. Jatorrizko herrialdean bizi diren atzerriko pertsonak kontratatzeke, enpresak dagokion bizileku- eta lan-baimena tramitatu beharko du kontratazioa gauzatzeko. Horretarako, baldintza batzuk bete beharko dira, eta enplegatzaileak hasiko du tramite-eskaera.
4. Kontratatu nahi den atzerritarra dagoeneko estatuan baldin badago egoera irregularrean, bizileku- eta lan-baimena eskatu beharko da ezohiko baldintzengatik, hala nola errotze soziala edo prestakuntzarako errotzea. Kasu horietan, langileak egingo du baimen-eskaera Atzerritartasun Bulegoan.
5. Bi kasuetan, kontratazioaren hasiera-datak baimenaren eraginkortasun-unearen arabera izan beharko du.
6. Tramite gehienetarako tasa bat ordaindu behar da, baita enplegatzaileak ere.
7. Eskaeran aurkeztu beharreko lan-kontratuak gutxieneko baldintzak bete behar ditu tramitatu ahal izateko.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Biltzen- Integraziorako eta kulturen arteko bizikidetzarako euskal zerbitzua

Arlo juridikoa: atzeritartasunaren arloan arreta juridikoa (09:30-14:00 h telefono-arreta eta posta elektronikoa)

- Erabiltzailea: tel.: 900 840 890
asesoria@euskadi.eus
- Profesionala: tel.: 94 400 18 09
juridika@biltzen.org

<https://biltzen>

